ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA, 2025KO FOOD 4 FUTURE AZOKAKO EUSKADI BASQUE COUNTRY STANDA DISEINATU, MUNTATU ETA DESMUNTATZEKO ZERBITZUAK EMATEKO PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEKO LIZITAZIOA ARAUTUKO DUENA.

1. KONTRATUAREN XEDEA

Prozedura honen xedea da HAZI Fundazioak Administrazio Baldintza Partikularren Agiri honetako **Karatularen 1. puntuan** (aurrerantzean, Karatula) adierazitako zerbitzuak eskainiko dituen kontratista bat hautatzea.

Zerbitzu horiek Agiri honen, Preskripzio Teknikoen Agiriaren eta kontratistaren proposamenaren arabera eskainiko dira.

Kontratuaren zati batzuk lotetan bereizita egitea aurreikusten bada, **Karatularen 1. puntuan** honako hauek adieraziko dira: kontratua zein lotetan zatitzen den; lizitatzaile berak zenbat lotetarako aurkez dezakeen eskaintza; lizitatzaile bakoitzari zenbat lote adjudika dakiokeen; kasu bakoitzean zehazten diren alderdiak.

Kontratuaren CPV kodea **Karatularen 1. puntuan** adierazten da.

2. ERAKUNDE KONTRATUGILEA ETA KONTRATAZIO-ORGANOA

Erakunde kontratugilea HAZI Fundazioa da (aurrerantzean, erakunde kontratugilea).

Kontratazio-organoa **Karatularen 2. puntuan** adierazten dena da, eta, hala badagokio eta ezar daitezkeen eskubide pribatuko arauen arabera, berariaz eman ahal izango dizkie ahalak egoki iritzitako pertsonei kontratuarekin zerikusia duten jarduera zehatzak betearazteko.

3. ADJUDIKATZEKO PROZEDURA

Prozedura ireki bidez adjudikatuko da kontratua, Agiri honetan ezarritako adjudikazio-irizpideen arabera kalitate-prezio erlaziorik onena (aurrerantzean, eskaintza onena) aurkeztu duen erakunde lizitatzaileari.

4. ALDAERAK

Erakunde lizitatzaileek aldaerak aurkezteko aukera **Karatularen 3. puntuan** adierazten da.

Aldaerak onartuz gero, **Karatularen 3. puntuan** daude gutxieneko baldintzak, motak eta horien ezaugarriak, baita kontratuaren xedearekin duen lotura ere.

5. KONTRATUKO DOKUMENTAZIOA

Adjudikazioaren ondoren formalizatuko den kontratuaz gain, honako agiri hauek ere kontratu-izaera izango dute:

- Administrazio Klausula Partikularren Agiri honek eta haren Karatulak.
- Preskripzio Teknikoen Agiriak.
- Adjudikaziodunak aurkeztutako eskaintza.
- **Karatularen 4. puntuan** adierazitako beste edozein dokumentaziok.

Dokumentu horiek erakunde adjudikaziodunak sinatu beharko ditu kontratua formalizatzean, ados dagoela frogatzeko.

6. KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratuaren iraupena **Karatularen 5. puntuan** adierazitakoa izango da.

7. ELEMENTU EKONOMIKOAK

7.1. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua **Karatularen 6.1. puntuan** adierazitakoa izango da.

Bestalde, kontratuaren prezioa ere **Karatularen 6.1. puntuan** ezarriko da.

Kontratuaren prezio horretan kontratua gauzatzeko behar diren kostu guztiak sartuko dira, besteak beste, adierazpen gisa eta ez mugatzaile gisa, honako hauek:

- Kontratua betearazteko beharrezkoak diren zuzeneko eta zeharkako kostu guztiak, agiri honetan eta Preskripzio Teknikoen Agirian aurreikusitakoarekin bat etorriz. Halaber, gerora ez da onartuko azken prezioan aurreikusi behar izan ziren kontzeptuen araberako fakturaziorik.

Kontratua betearazteko berezko kontzeptu guztiak eta betearazpen horretan aritutako langileen gastuak (soldatak eta Gizarte Segurantza, oporrak eta aparteko ordainsariak, gaueko eta jaiegunetako lanaldiak, baja edo gaixotasunagatiko ordezkapenak, banakako istripu-aseguruak, etab.) zerga guztiak (BEZa izan ezik), aseguruak, lizentziak, garraio-gastuak eta joan-etorrietakoak, baimenak eta gainerako gastu orokorrak.

- Kontratistak kontratua betearazteko behar dituen bitartekoak, tresnak, gailu informatikoak, ibilgailuak, bestelako gailuak, ekipoak eta erremintak.
- Kontratuaren garapen eta betearazpen zuzena ahalbidetzeko erakunde kontratugileak zehaztutako lan- edo informazio-bilera guztietara joatea.

- **Karatularen 6.1 puntuan** zerrendatutako beste edozein kontzeptu.

7.2. KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Kontratuaren balio zenbatetsia **Karatularen 6.2 puntuan** adierazitakoa da. Espainiako ordenamendu juridikora Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko

2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duen Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (aurrerantzean, SPKL) 101. artikuluan aurreikusitako moduan eta ondorioetarako kalkulatua.

Balio zenbatetsi hori SPKLren 101. artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulatu da.

Aurreikuspen horrek ez du inolako konpromisorik erakunde kontratugilearentzat.

8. PREZIOA ORDAINTZEA

Kontratuaren prezioa **ezarritako maiztasunarekin ordainduko da,** erakunde kontratistak dagokion faktura aurkeztu ondoren.

Erakunde kontratistari ordaindu beharreko hileko zenbatekoa kalkulatzeko, kontratistak eskainitako unitateko prezioari dagokion aldian benetan egindako unitateak aplikatuko zaizkio.

Kontratistak hiru hilean behin **faktura xehatua** egin beharko du, zerbitzuei dagokien aldia amaitu eta hamabost egun naturaleko epean.

Erakunde kontratugileak hileko zenbateko hori ordainduko du zerbitzuei dagokien aldia amaitu eta 30 egun naturaleko epean, adierazitako epean egin bada faktura eta erakunde kontratugilearen oniritzia badu.

Ez da ordainduko inolako lanik edo zerbitzurik Agiri honetan aurreikusitako kontratu-xedetik kanpo egin bada edo aurrez erakunde kontratugileak eskatu ez badu.

9. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Karatularen 8. puntuan xedatutakoa ezarriko da.

10. PUBLIZITATEA

Erakunde kontratugilearen kontratatzailearen profilean argitaratuko dira honako hauek:

- Lizitazioaren deialdiaren iragarkia.
- Kontratuaren adjudikazioaren iragarkia.
- Kontratuaren formalizazio-iragarkia.
- SPKLren 63. artikuluan agertzen den gainerako informazioa.

Erakunde kontratugilearen kontratatzailearen profilean webgune honetatik sartuko da: www.hazi.eus / www.contratacion.euskadi.eus

11. BEHIN BETIKO BERMEA

Eskaintzarik onena aurkeztu duen erakunde lizitatzaileak behin betiko bermea eratu beharko du **Karatularen 9. puntuan** adierazitako zenbatekoarekin.

Eskaintza onena aurkeztu duen erakunde lizitatzaileak aipatutako behin betiko bermearen eratzea frogatu beharko du 10 egun balioduneko epean, xede horretarako kontratazio-organoaren errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Behin betiko berme horrek SPKLren 110. artikuluan zerrendatutako kontzeptuei erantzungo die, eta SPKLren 108. artikuluan xedatzen diren eraren batean eratu ahal izango da, eta ez da beharrezkoa izango Gordailuen Kutxa Nagusian eratzea.

Abal moduan aurkezten bada, abala Agiri honetako **I. eranskinean** jasotzen den ereduari egokituko zaio.

Bermea eratzeko akreditazioa bitarte elektronikoen bidez egin ahal izango da.

Kontratistari exijitu ahal zaizkion kalte-ordain edo zigorrak behin betiko bermean ezartzen badira, kontratistak bermeari dagokion zenbatekoa gehitu edo birjarri beharko dio, exekuzio egunetik 15 egun naturaleko epean, bestela, kontratua suntsitzeko kausa izango baita.

Kontratua aldatzearen ondorioz bere prezioa ere aldatzen bada, kontratistak behin betiko bermea birdoitu beharko du aldatutako prezio berriarekin ere dagokion proportzioa manten dadin. Kontratistak bermearen aldaketa egiteko epea 15 egun naturalekoa izango da aldaketa-hitzarmenaren berri ematen zaion egunetik kontatzen hasita.

Bermearen itzultzea SPKLren 111. artikuluan xedatutakoaren arabera burutuko da, behin bermearen epea igaro denean eta kontratistak kontratu-betebehar guztiak bete dituenean.

Bermearen itzultzeko, erakunde kontratugileak aldeko txosten bat sortu beharko du.

Klausula honetan aipatzen ez dena, SPKLren 106. eta hurrengo artikuluetan jasotakoa aplikatuko da.

12. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Erakunde kontratugilearekin kontratatu ahal izango dute jarduteko gaitasun osoa duten pertsona naturalek edo juridikoek, izan espainiarrak izan atzerritarrak, baldin eta kontratatzeko debekurik ez badute eta kaudimena egiaztatzen badute.

Era berean, erakunde lizitatzaileek enpresa- edo lanbide-gaikuntza izan behar dute, zeina, hala badagokio, kontratuaren xede den zerbitzua emateko beharrezkoa den.

Pertsona juridikoei kontratu bat adjudikatzeko, kontratuaren zerbitzuak kontratuaren berezko helburuen, xedeen edo jarduera-arloaren parte izan beharko dira, bere sortze-arau edo -Estatutuen arabera.

Nolanahi ere, erakunde kontratugilearekin kontratatu ahal izango dute Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko hitzarmena sinatu duten Estatuetako Espainiatik kanpoko enpresek, betiere, kokatuta dauden Estatuaren arautegiaren arabera, kasuan kasuko

zerbitzua emateko gaituta badaude, SPKLren 67. artikuluan aurreikusitakoa aplikatzekoa baita.

Enpresa horiek kokatzen diren Estatuaren legeriak kasuan kasuko zerbitzua emateko exijitzen badu baimen berezi bat izatea edo erakunde zehatz bateko kidea izatea, aipatutako baldintza betetzen dutela egiaztatu beharko dute.

Nazioarteko erabakiek Espainiarentzat dakartzaten betebeharrak aplikatzeari kalterik egin gabe, Europar Batasunekoak edo Europako Esparru Ekonomikoaren Akordioaren sinatzaileak ez diren estatuetako pertsona fisikoek edo juridikoek justifikatu egin beharko dute, txosten baten bidez, atzerriko enpresaren jatorrizko estatuak onartu egiten duela, baita ere, Espainiako enpresek parte hartzea SPKLren 3. artikuluan zerrendatutakoen antzeko sektore publikoko erakundeekiko kontratazioan, modu bertsuan. Txosten hori Espainiak atzerrian duen Ekonomia eta Merkataritza Bulegoak egingo du, eta aurkezten den dokumentazioari gehituko zaio.

Erakunde kontratugilearekin kontratatu ahal izango dute xede horretarako aldi baterako eratutako enpresari-elkarteek, kontratua haien alde adjudikatu arte eskritura publikoan formalizatu beharrik gabe, eta SKPLren 69. artikuluan aurreikusitakoa ezarriko da.

Erakunde lizitatzaileek **Karatularen 10. puntuan** adierazitako gutxieneko kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta profesionala edo teknikoa izan behar dute.

Erakunde lizitatzaileek kontratuaren betearazpenari gutxienez **Karatularen 10. puntuan** adierazitako giza baliabideak edo baliabide materialak atxiki beharko dizkiote, hala badagokio.

Era berean, **Karatularen 10. puntuan** adierazitako berariazko baldintzak bete beharko dituzte lizitatzaileek, ahal badagokio.

Erakunde lizitatzaileei eskatzen bazaie kontratuaren betearazpenari giza baliabide edo baliabide material jakin batzuk atxikitzeko, konpromiso hori funtsezko kontratu-betebeharra izango da SKPLren 211. f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako; beraz, hori ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da, erakunde kontratugilearen borondatez.

Kontratua suntsiarazi ordez, kontratistak kontratua betearazteko atxikitako pertsona aldatzen badu, erakunde kontratugileak hitzemandako pertsona berehala lotzeko eskatu ahal izango dio, edo, kontratistarekin zerikusirik ez duten arrazoiak direla-eta horrelakorik ezin bada egin, prestakuntza eta esperientzia bereko giza baliabideak berehala jartzeko eskatuko dio. Pertsona horrek erakunde kontratugilearen berariazko baimena izan beharko du.

Eskatutako kaudimena eta/edo eskatutako baliabideak atxikitzeko konpromisoa ziurtatzeko, lizitatzaileak beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo bitartekoetan oinarritu daitezke, haiekin dituzten loturen izaera juridikoa dena delakoa izan arren, baldin eta frogatzen badu kontratuaren indarraldi osoan kaudimen eta/edo baliabide horiek benetan dituela, eta horretarako baliatuko duen erakundeak ez daukalako kontratatzeko inolako debekurik.

Beste erakunde batzuen kaudimenetan edo baliabideetan oinarritu nahi duten erakunde lizitatzaileek adierazi egin beharko dute hori 1. gutun-azalean sartu beharreko erantzukizunpeko adierazpenean (zehazki, KEDBren II. ataleko C sekzioan), **II. eranskineko** ereduaren arabera.

Kasu horietan, hirugarren erakunde horietako bakoitzak III. eranskineko ereduaren araberako erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du.

Era berean, eskaintzarik onena aurkeztu duen erakunde lizitatzaileak beste erakunde batzuen kaudimenean edo baliabideetan oinarri nahi badu, egiaztatu egin beharko du beharrezko baliabideak izango dituela, eta, horretarako, erakunde horien idatzizko konpromisoa aurkeztu beharko du (**II. eranskinean** dagoen ereduaren arabera eginda).

Konpromiso hori notarioaren aurrean eman beharko du eskaintzarik onena aurkezten duen erakunde lizitatzaileak adierazten duen erakundeak edo erakundeek, eskatutako kaudimena edo baliabideak atxikitzeko konpromisoa egiaztatzeko, eta honako hauek adierazi beharko dira: goitik behera ezagutzen dituela lizitatzaileak parte hartzen duen lizitazioaren baldintzak; aipatutako kaudimena edo atxiki beharreko baliabideak dituela, eta hori guztia egiaztatzeko agiria aurkeztuko duela (17. klausulan xedatutako moduan); eta, modu ezeztaezinean, lizitatzailearen eskura jarriko dituela, adjudikaziodun izaten bada, kontratua gauzatzeko behar diren baliabideak (Kode Zibilaren 1257.2 artikuluan xedatutakoa berariaz onartuta, eta erakunde kontratatzaileak berariaz baimendu beharko du hura ordeztea edo aldatzea). Idatzi hori aurkeztearen ondorioa izango da erakunde kontratatzaileak konpromiso hori onartzea, baldin eta dena delako erakunde lizitatzailea adjudikaziodun izaten bada.

Eskaintzarik onena aurkeztu duen erakunde lizitatzaileak aurkeztu beharko du konpromiso hori, 10 egun balioduneko epean, kontratazio-organoak xede horretarako egindako errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

Klausula honek aipatzen dituen kontratuak egiteko gaitasuna, kaudimena eta debekurik ezari buruzko baldintzak eskaintzak aurkezteko epemugan bete beharko dira, baita kontratua burutzen den unean ere.

13. PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA

13.1. AGIRIAK ETA GAINERAKO DOKUMENTAZIO OSAGARRIA ESKURATZEA

Agiriak eta gainerako dokumentazio osagarria erakunde kontratugilearen kontratatzailearen profilean egongo dira eskuragarri lizitazio-iragarkia argitaratzen denetik eta proposamenak aurkezteko epe osoan.

Agiriak eta gainerako dokumentazio osagarria bitarteko ez elektronikoen bidez eskura daitezkeen kasuetan, **Karatularen 11.1 puntuan** adieraziko da.

13.2. AURKEZTEKO BITARTEKOAK

Eskaintzak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko dira, Eusko Jaurlaritzaren Lizitazio Elektronikoaren aplikazioaren bidez, helbide honetan: https://apps.euskadi.eus/appcont/lizitazioa.

13.3. GUTUN-AZALEN EDO ARTXIBO ELEKTRONIKOEN EDUKIA

Erakunde lizitatzaileen proposamenak Agiri honetan, bere Karatulan, Preskripzio Teknikoen

Agirian eta kontratuaren gainerako dokumentazioan jasotakoari jarraitu beharko diote, eta aurkezteak berekin ekarriko du erakunde lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzea klausula guztien edukia, inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe.

Gutun-azal edo artxibo elektroniko bakoitzak jarraian adierazitako dokumentazioa izango du eta bertan dauden dokumentuen zerrenda zenbakitua izango du.

Gutun-azal horiek 1. gutun-azala, 2. gutun-azala eta 3. gutun-azala izango dira.

1. gutun-azala: "AURRETIKO BALDINTZAK BETETZEN DIRELA FROGATZEKO DOKUMENTAZIOA"

Erakunde lizitatzaileek honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte:

1. Aurretiko betekizunak betetzeari buruzko dokumentazioa
   - Erantzukizunpeko adierazpena, Kontrataziorako Europako Dokumentu Bakarraren (aurrerantzean, KEDB) inprimakiarekin bat datorrena. Inprimakia Agiri honen **II. eranskinean** dago jasota.

   - KEDB Europako Batzordearen 2016ko urtarrilaren 2016/7 Egikaritze Araudiko I. eranskinean jasotako argibideei jarraituz bete beharko da. Araudi horren bidez Europako kontratazio agiri bakarraren inprimaki normalizatua ezarri zen.
   - Zehazki "IV: atalari" dagokionez: Zehazki KEBDren "IV: atalari" (Hautaketa-irizpideak) dagokionez, lizitatzaileek A atala baino ez dute bete beharko: "Hautaketa-irizpide guztiei buruzko adierazpen orokorra".
     Agiri honetako 12. klausularen arabera erakunde lizitatzaileak beste erakunde batzuen kaudimenera eta/edo bitartekoetara jotzen badu, horiek ere erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute, eta KEDBren II. ataleko A ("Operadore ekonomikoari buruzko informazioa") eta B ("Operadore ekonomikoaren ordezkariei buruzko informazioa") sekzioetan eta III. atalean eskatzen den informazioa jaso beharko da bertan.
   - Zenbait enpresaburu aldi baterako elkartuta aurkezten badira, enpresa bakoitzak bere erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du eta, bertan, KEDBren II. ataletik V. atalera adierazitako informazioa jaso beharko da.

   - Aldi baterako enpresa-elkartea eratuta aurkezten diren enpresaburuek kideen izenak, inguruabarrak eta bakoitzaren parte-hartzea adierazi beharko dituzte, eta, gainera, adjudikaziodun izendatzen badituzte, aldi baterako enpresa-elkartea formalki eratzeko konpromisoa hartu beharko dute. Aldi baterako enpresa-elkartea eratuta aurkezten diren enpresaburuek betebehar solidarioa izango dute eta ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu beharko dute enpresaburuen elkartearen izenean, kontratua azkendu artean bertatik sortutako eskubideez baliatzeko eta betebeharrak betetzeko ahalorde askietsiarekin; nolanahi ere, zenbateko handi samarrak kobratzeko eta ordaintzeko ahalorde mankomunatuak eman ahalko dituzte enpresek.

2. Atzerriko enpresek, berariazko adierazpen batean, Espainiako auzitegi eta epaitegien jurisdikzioaren mende gelditzen direla adieraziko dute, kontratuari lotuta zuzenean edo

zeharka sor litezkeen gorabehera guztietarako, eta lizitatzaileari zegokiokeen atzerriko jurisdikzio foruari uko egiten zaiola adieraziko dute, hala badagokio.

3. **Karatularen 11.2 puntuan** adierazten den balio-iritzi baten bidez kuantifikatu beharreko irizpideei buruzko dokumentazioa.

OHARRA:

1. 1. puntuan aipatutako adierazpenaren indarraldiari edo fidagarritasunari buruzko arrazoizko zalantzak baldin badaude edo prozedura behar bezala gauzatzeko beharrezkoa baldin bada, erakunde kontratugileak frogagiri guztiak edo batzuk aurkezteko eska diezaieke lizitatzaileei.

Nolanahi ere, enpresaburua Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean izena emanda baldin badago, edo Europar Batasuneko estatu kide bateko datu-base nazional batean enpresaren espediente birtual bat, dokumentuak gordetzeko sistema elektroniko bat edo aurre-kalifikaziorako sistema bat sartuta baldin badago, eta aipaturiko organoak doan sar baldin badaitezke horietara, ez da beharrezkoa izango aipaturiko lekuetan inskribatutako datuen frogagiririk edo dokumentu bidezko frogarik aurkeztea.

2. gutun-azala: "BALIO-IRITZI BATEN BIDEZ KUANTIFIKATU BEHARREKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA"

Erakunde lizitatzaileek **Karatularen 11.2 puntuan** adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko dute gutun-azal honetan.

Erakunde lizitatzaileak arreta berezia jarri beharko du gutun-azal honetan sartu beharreko dokumentazioa prestatzean, eta edukiari buruzko argibideei jarraitu beharko die. Era berean, ezingo da eskaintzaren alderdi ekonomikoak orienta edo ezagutaraz ditzakeen erreferentziarik egin.

Printzipio horiek betetzen ez dituzten eskaintzak atzera bota eta prozeduratik kanpo gelduko dira.

Erakunde kontratugileak beretzat gordetzen du, halaber, egokitzat jotzen duen egiaztatze lanak egiteko edo beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio osagarria eskatzeko eskubidea, lizitatzaileek emandako informazioa egiazkoa dela egiaztatzeko helburuarekin.

3. gutun-azala. "FORMULEN BIDEZ EBALUA DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA"

Erakunde lizitatzaileek formulen bidez ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa aurkeztu beharko dute, Agiri honen **V. eranskinean** atxikita dagoen ereduari jarraikiz.

Erakunde kontratugileak 1., 2. eta 3. gutun-azaletan jasotako dokumentuen edukia egiazkoa dela egiazta dezake adjudikazioaren aurretik zein ondoren, eta baita kontratuak irauten duen bitartean ere; eta enpresak aurkeztutako datuak eta inguruabarrak gezurrezkoak baldin badira, kontratua deusezta daiteke, kontratistak baldintzak bete ez dituelako.

14. ADJUDIKATZEKO IRIZPIDEAK

Adjudikazio-irizpideak **Karatularen 12. puntuan** daude adierazita, dagokien haztapenarekin.

15. EBALUAZIO BATZORDEA

Kontratazio-organoak Ebaluazio Batzorde baten laguntza izango du. Batzorde horrek **Karatularen 13. puntuan** adierazita dauden kideak izango ditu.

16. PROPOSAMENAK IREKITZEA

Ebaluazio Batzordeak 1. gutun-azalean ("Aurretiko baldintzak betetzen direla frogatzeko dokumentazioa") jasotako dokumentazioa kalifikatuko du lehenik, baldin eta epearen barruan eta behar bezala aurkeztu bada. Aurkeztutako dokumentazioan akats zuzengarririk baldin badago, erakunde kontratugileak hiru egun naturaleko epea emango dio lizitatzaileari akats horiek zuzentzeko.

Eskaintzak aurkeztu ondoren, 2. gutun-azala ("Balio-iritzi baten bidez kuantifika daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa") irekiko da, bertan dagoen dokumentazioa aztertzeko eta baloratzeko, eta prozeduratik kanpo geratuko dira.

Balio-iritzi baten bidez kuantifika daitezkeen irizpideek formulen bidez ebalua daitezkeenek baino haztapen handiagoa badute, balio-iritzi baten bidez kuantifika daitezkeen irizpideak **Karatularen 14. puntuan** adierazitako kideek osatzen duten Batzordeak baloratuko ditu.

2. gutun-azaleko dokumentazioa aztertu eta baloratu ondoren, 3. gutun-azala ("Formulen bidez ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa") irekiko da.

3. gutun-azala ("Formulen bidez ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa") ireki aurretik, balio-iritzi baten bidez kuantifika daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioaren balorazioaren emaitza jakinaraziko zaie lizitatzaileei.

Ondoren, 3. gutun-azala ("Formulen bidez ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa") irekiko da, bertan dagoen dokumentazioa aztertzeko eta baloratzeko.

Nolanahi ere, 2. gutun-azala ("Balio-iritzi baten bidez kuantifika daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa") eta 3. gutun-azala ("Formulen bidez ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa") ekitaldi publikoan irekiko dira, non eta proposamenen aurkezpenean ez diren baliabide elektronikoak erabiltzen, **Karatularen 11.1 punt**uan adierazitakoaren arabera.

2. gutun-azala ("Balio-iritzi baten bidez kuantifika daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa") eta 3. gutun-azala ("Formulen bidez ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa") ekitaldi publikoan irekitzen badira, lizitatzaile guztiei jakinaraziko zaie zer egun, ordu eta lekutan irekiko diren 2. gutun-azala ("Balio-iritzi baten bidez kuantifika daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa") eta 3. gutun-azala ("Formulen bidez ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa"). Informazio hori erakunde kontratugilearen kontratatzailearen profilean ere

argitaratuko da, gutxienez 48 ordu lehenago.

Ebaluazio Batzordeak baztertu egingo ditu 1098/2001 Errege Dekretuaren 84. artikuluan aurreikusitako kausaren batean dauden proposamenak, eta kontratazio-organora igorriko du aurkeztutako proposamenen zerrenda, **Karatularen 12. puntuan** ezarritako adjudikazio-irizpideak kontuan hartuta puntuazio altuena duenetik txikiena duenera sailkatuta, eta eskaintza onena identifikatuko du.

Ondoren, kontratazio-mahaiak honako hauek egingo ditu:
• Eskaintzak ebaluatu eta sailkatu
• Puntuaziorik handiena duen eskaintzaren alde adjudikazio-proposamena egitea.
• Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialaren (ROLECSP) gaitasun juridikoari, kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoari eta kontratatzeko debekuei buruz jasotako alderdiak egiaztatzea. ROLECSPko inskripzioan daturen bat falta bada, kontratua adjudikatu aurretik behar den dokumentazioa eskatzea, gaitasun juridikoa, kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa eta kontratatzeko debekuak egiaztatzen dituena.

HAZIk, bere proposamena egin aurretik, egokitzat jotzen dituen txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu.

Puntuaziorik onena lortu duen lizitatzailearen eskaintza baxuegia baldin bada **Karatularen 12. puntuan** adierazitako parametroen arabera, Ebaluazio Batzordeak SPKLren 149. artikuluan aurreikusitako prozedurari jarraituko dio, erakunde lizitatzaileak dagokion justifikazioa egin dezan, hori egiteko errekerimendua bidali eta bost egun balioduneko epean.

Adjudikazio-proposamenak ez du inolako eskubiderik sortuko proposatutako lizitatzailearen alde, erakunde kontratugilearen aurrean. Nolanahi ere, kontratazio-organoak ez badu kontratua adjudikatzen egindako proposamenaren arabera, erabaki hori arrazoitu egin beharko du.

17. KONTRATUA ADJUDIKATZEA

Adjudikaziorako aukeratutako erakunde lizitatzailea hautatzeko, kontratazio-organoa, eskuarki, bat etorriko da Ebaluazio Batzordeak egiten duen proposamenarekin. Bestela bada, kontratazio-organoak proposamen horretatik bereizteko erabakia arrazoitu beharko du, eta hala behar badu, proposamenen behin betiko sailkapena egingo du.

Kontratazio-organoak Ebaluazio Batzordearen proposamena onartzen duenean, erakunde kontratugileak 10 egun balioduneko epea emango dio eskaintzarik onena aurkeztu duen erakunde lizitatzaileari, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, jarraian adierazitako dokumentazioa aurkez dezan:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean edo Estatuko Lizitatzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta daudela egiaztatzen duen eta erregistroko letratu arduradunak emandako indarreko izen-emate ziurtagiriaren kopia. Izen-emate ziurtagiriarekin batera erakunde lizitatzaileak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena erantsi beharko da; haren bitartez adierazi beharko du dokumentuan islatutako inguruabarrak ez direla

aldatu.

- Inskribatuta ez badaude, honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

1. Eskaintzak aurkezteko azken egunean erakunde kontratugilearekin kontratuak egiteko legez ezarritako baldintza guztiak betetzen direla frogagiriak, eta Agiri honetako 12. klausulan gaitasunari, kaudimenari eta kontratatzeko debekurik ezari dagokienez eskatutako baldintza guztiak, jarraian adierazitako eran.

   Proposamena aldi baterako enpresa-elkarte batean lehiatu nahi duten enpresaburuek egin badute, aipatu dokumentazioak elkartea osatzen duten enpresa guztiei buruzkoa behar du izan.

   (i) Lizitatzailearen eta, hala behar duenean, haren ordezkariaren jarduteko gaitasuna eta nortasuna egiaztatzen dituzten dokumentuak:

   - Pertsona juridikoak diren enpresaburuen jarduteko gaitasuna eskrituraren edo eratze-dokumentuaren, Estatutuen edo bere jarduera arautzen duten arauak biltzen dituen sorrera-ekintzaren bidez egiaztatuko da, eta hala behar duenean, dagokion Erregistro Publikoan izena emanda egongo dira dokumentu horiek, den pertsona juridiko motaren arabera betiere.
   - Europar Batasuneko estatu kideetako enpresaburu ez espainiarrek, beren jarduteko gaitasuna frogatzeko, dagokien estatuaren legeriaren arabera dagokien erregistroko izen-ematea aurkeztu beharko dute, edo zinpeko aitorpen bat edo ziurtagiri bat, Europar Batasunaren aplikatu ahal diren xedapenen arabera.
   - Gainerako enpresaburu atzerritarren jarduteko gaitasuna Espainiak dagokion estatuan duen Diplomaziako Misio Iraunkorraren txostenaren edo enpresaren egoitza dagoen lurralde esparruko bulego kontsularraren txostenaren bidez egiaztatuko da. Txosten horren bidez, honako hau justifikatu beharko dute: atzerriko enpresaren estatuak onartu egiten duela Espainiako enpresek kontratuak egin ahal izatea administrazioarekin eta SPKLren 3. artikuluan zerrendatzen diren sektore publikoko erakunde, organismo edo entitateekin; funtsean, antzekoa den moduan.
   - Enpresaburuen jarduteko gaitasuna egiaztatzeko, pertsona fisikoak badira, Nortasun Agiri Nazionala, edo dagokion estatuko baliokidea, aurkeztu beharko da.
   - Beste baten izenean proposamenak aurkezten edo sinatzen dituztenek Nortasun Agiri Nazionalaren kopia aurkeztuko dute, eta horretarako beharrezkoa den ahalorde askietsia. Enpresa pertsona juridikoa izanez gero, ahalordeak Merkataritza Erregistroan izena emanda egon beharko du, hori beharrezkoa bada Merkataritza Erregistroko Erregelamenduko 94. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, edo, hala badagokio, den pertsona juridiko motaren arabera dagokion erregistro publikoan egon beharko du izena emanda.

   Dokumentazio horren guztiaren originalak aurkeztuko dira, edo behar bezala konpultsatutako kopiak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean edo Estatuko Lizitatzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean izena emanda dauden erakunde lizitatzaileek aukera izango dute erregistroko letratu arduradunak emandako indarreko izen-emate ziurtagiriaren kopia aurkezteko, (i) atalean aipatutako dokumentazioaren ordez. Izen-emate ziurtagiriarekin batera erakunde lizitatzaileak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena erantsi beharko da; haren bitartez adierazi beharko du dokumentuan islatutako inguruabarrak ez direla aldatu.

(ii) Kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko edo profesionala egiaztatzen duen dokumentazioa, eta, hala dagokionean, Agiri honetako 12. klausulan eskatutako sailkapena egiaztatzen duena.

- Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa. Hala dagokionean, erakunde lizitatzailearen urteko negozio bolumena honako hauen bidez egiaztatuko da:

  - Onartu eta Merkataritza Erregistroan utzitako urteko kontuak, enpresaburua erregistro horretan inskribatuta egonez gero, edo, bestela, inskribatuta egon behar duen erregistro ofizialean utzitakoak. Merkataritza Erregistroan inskribatuta ez dauden banakako enpresaburuek Merkataritza Erregistroan legeztaturik dituzten inbentario liburuen eta urteko kontuen bitartez egiaztatuko dute urteko negozio bolumena.

  - Erakunde lizitatzaileak izenpetutako erantzukizunpeko adierazpena, bere negozio bolumena adierazten duena.

- Kaudimen teknikoa edo profesionala. Kaudimena azken hiru urteetan emandako zerbitzuen edo egindako lanen zerrenda baten bitartez egiaztatuko da. Zerrenda horretan aipatu beharko dira aipatutako lan edota zerbitzuen zenbatekoa, data eta hartzailea, publikoa zein pribatua. Aipatutako zerbitzuak edo lanak organo eskudunak igorritako edo homologatutako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira, hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean; hartzailea subjektu pribatua denean, aldiz, berak igorritako ziurtagiri baten bidez, edo, ziurtagiri hori egin ezean, erakunde lizitatzailearen adierazpen baten bidez, lizitatzaileak bere esku dituen zerbitzuaren prestazioa egiaztatzen duten dokumentuekin batera.

  Kontratista sortu berri den enpresa bat denean, (duela bost urte baino lehenago sortu ez zena) haren kaudimen teknikoa SPKLren 89.1 artikuluko b)-tik g)-ra letretan aipatutako bitartekoetako baten edo gehiagoren bidez egiaztatuko da. Halaber, inola ere ezin aplikatuko da a) letran (zerbitzu kopuru jakin baten betearazpenari buruzkoa) xedatutakoa.

- Sailkapena: Hala badagokio, sailkapena organo eskudunak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da, haren indarraldiari buruzko eta dagokion ziurtagirian jasotako inguruabarrak ez direla aldatu dioen erantzukizunpeko

adierazpenarekin batera. Adjudikaziodun izanez gero, adierazpen hori berretsi egin beharko da kontratua formalizatzeko dokumentuan.

Agiri horren bidez egiaztatuko da erakunde lizitatzailea adierazitako taldean eta azpitaldean dagoela sailkatuta, adierazitako kategorian edo kategoria handiago batean.

Agiri horrek, halaber, klausula honen 1. (i) apartatuan adierazitako inguruabarrak egiaztatu ahal izango ditu, hau da, lizitatzailearen jarduteko nortasuna eta gaitasuna eta, hala behar duenean, haren ordezkaritza.

(iii) Lekukotza judiziala edo administrazio-ziurtagiria, zeinaren bitartez egiaztatzen den erakunde lizitatzaileak ez duela SPKLren 71. artikuluan jasotzen diren kontratatzeko debekurik.

Dokumentu hori ezin badu agintari eskudunak eman, horren ordez erantzukizunpeko adierazpen bat egin ahal izango da, administrazio-agintari, notario publiko edo erakunde profesional kualifikatu baten aurrean.

(iv) Hala dagokionean, **Karatularen 10. puntuan** adierazitako eskakizun espezifikoak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioa.

Lizitaziora Europar Batasuneko estatu kide bateko enpresaburu atzerritarrak edo Europako Esparru Ekonomikoaren sinatzaileak aurkezten badira, haien gaitasuna, kaudimena eta debekurik eza estatu kide bateko operadore ekonomiko baimenduen zerrenda ofizialean kontsulta eginez edo alderdi horiek egiaztatzen dituen dokumentazioa aurkeztuz egiaztatu ahal izango dira.

2. Hala dagokionean, eskaintzan kontratuari atxikitzeko hitzemandako giza baliabideak eta baliabide materialak badauzkala egiaztatzen duen dokumentazioa.

(i) Kontratuaren betearazpenari atxikitzeko hitzemandako giza baliabideei dagokienez, aukeratutako lizitatzaileak honako dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu:

- Kontratua betearaziko duen talde osoa, izenez identifikatuta, curriculum vitaearen fitxekin batera, non jasoko diren:
  1. Titulazio akademiko ofiziala.
  2. Esperientzia, dagokion arloan.
  3. Hala dagokionean, erakunde kontratugileak eskatzen duen bestelako edozein informazio.
- Aipatutako giza baliabide guztiak benetan eskuragarri dituela egiaztatzen duen dokumentazioa.

Datu pertsonalak babesteko aplikagarria den araudian aurreikusitakoaren arabera, eta giza baliabideei buruzko dokumentazioan jasota dagoen informazio mota kontuan hartuta, (i) datu pertsonal horiek biltzea eta erabiltzea aukeratutako erakunde

lizitatzaileak egin beharreko datuen tratamendua izango da, Tratamenduaren Arduradun gisa; eta (ii) klausula honetan aurreikusitakoa betez datu horiek erakunde kontratugileari ematea datu lagapena izango da, lagatzaile gisa.

Ondorio horietarako, aukeratutako erakunde lizitatzaileak bete egin beharko ditu datuak babesteari buruzko nazioko araudian eta aplikatzekoa den Europar Batasuneko araudian xedatutakotik eratortzen diren eginbeharrak, aurreko paragrafoan adierazitako datuen tratamendu eta lagapenari dagokienez. Zehazki, eta bestelako betebeharrei kalterik egin gabe, tratamenduaren arduradun den heinean aukeratutako lizitatzaileak lortu egin beharko du, bere ardura bakarpean, interesatuen oniritzi kontziente eta informatua datu horiek jakinarazi ahal izateko. Alderdi hori erakunde kontratugilearen aurrean egiaztatu beharko du, eskaera egiten zaion guztietan.

(ii) Kontratuaren betearazpenari atxikitzeko hitzemandako baliabide materialei dagokienez, aukeratutako erakunde lizitatzaileak honako dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu:

- Kontratuaren betearazpenari atxikitako baliabide materialen identifikazioa, eskakizunak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioarekin batera.
- Baliabide material horiek guztiak benetan eskuragarri dituela egiaztatzen duen dokumentazioa.

Erakunde kontratugileak eskubidea du erakunde lizitatzaileek aurkeztutako informazioa egiazkoa dela ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen-lanak egiteko edo dokumentazio osagarria eskatzeko.

3. Agiri honen 11. klausulan eskatzen den behin betiko bermea eratu izanaren egiaztagiria.

4. Hala badagokio, adierazpenen notario-akta, erakunde lizitatzaileak, eskatzen den kaudimena duela eta/edo kontratura ezarritako bitartekoak atxikitzeko konpromisoa duela egiaztatzeko, beste erakunde batzuen kaudimenean edo bitartekoetan oinarritu nahi badu, **IV. eranskinean** jasotako ereduaren arabera.

5. Hala badagokio, aldi baterako enpresa-elkartearen lege-sorrera ziurtatuko da. Aldi baterako enpresa-elkartearen arduraduna edo ahalordea izendatuko da eta nahikoa botere edukiko du kontratua iraungi bitartean eskubideak gauzatzeko eta betebeharrak betetzeko.

Erakunde kontratugileak eskubidea du erakunde lizitatzaileek aurkeztutako informazioa egiazkoa dela ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen-lanak egiteko edo dokumentazio osagarria eskatzeko.

Aurkeztutako dokumentazioan konpon daitezkeen akatsak topatuko balitu, erakunde kontratugileak hiru egun naturaleko epea emango ahal izango dio erakunde lizitatzaileari haiek zuzentzeko.

Adierazitako epean dokumentua aurkezteko eskakizuna behar bezala betetzen ez bada edo aurkeztutako dokumentazioak akats edo ez-egite konponezinak baditu, ulertuko da lizitatzaileak

eskaintzen kendu duela, eta oinarrizko lizitazio-aurrekontuaren % 3 (BEZik gabe) eskatuko zaio zigor gisa. Halakoetan, hurrengo lizitatzailearen dokumentua jasoko da, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkeran.

Kontratazio-organoak eskatutako dokumentazioa jaso eta bost egun balioduneko epean adjudikatuko du kontratua; gehienez ere hiru hilabeteko epea edukiko du, proposamenak irekitzen diren egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Kontratazio-organoak ebazpen arrazoitu batean jasoko du adjudikazio-erabakia, eta hautagaiei eta lizitatzaileei jakinaraziko die, jakinarazpenak jasotzeko haiek adierazitako bitartekoaren bidez. Erabaki hori kontratugilearen profilean argitaratu beharko da 15 egun naturaleko epean.

18. KONTRATUA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA

Kontratua formalizatzen den unean burutuko da.

Kontratua dokumentu pribatuan formalizatuko da. Dokumentu hori zehatz-mehatza egokituko da lizitazioaren baldintzetara. Kontratua formalizatzen duen dokumentuan ezin izango dira inola ere sartu kontratazioaren baldintzak aldatzea ekarriko duten klausulak.

Erakunde adjudikaziodunak, hala ere, kontratugileak kontratua eskritura publikoan egitea eskatu ahal izango du, eta horri dagozkion gastuak bere gain hartuko ditu.

Adjudikazioa erakunde lizitatzaileei eta hautagaiei jakinarazi eta hurrengo hamabost egun balioduneko epean formalizatuko da.

Kontratuaren formalizazioa erakunde kontratugilearen kontratatzailearen profilean argitaratuko da, dagokion kontratuarekin batera, gehienez ere hamabost egutegi-eguneko epean, kontratua burutu ondoren.

Adjudikaziodunari egotzi dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratua adierazitako epean formalizatzen ez bada, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren zenbatekoa (BEZik gabe) eskatuko zaio, zigor gisa. Zenbateko hori ordainduko da, lehenik, behin betiko bermearen kontra, alde batera utzi gabe SPKLren 71. artikuluko 2) apartatuaren b) letran ezarritakoa. En este caso, el contrato, se adjudicará al siguiente licitador por el orden en que hayan quedado clasificadas las ofertas, previa presentación de la documentación exigida en la Cláusula 17 del presente Pliego, concediendo un plazo de diez días hábiles para presentar la misma.

19. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratazio-organoak kontratuaren arduradun bat izendatuko du. Bera arduratuko da kontratuaren exekuzioa gainbegiratzeaz eta adostutako prestazioa behar bezala ematen dela bermatzeko erabakiak hartu eta dagozkion jarraibideak emateaz, erakunde kontratatzaileak ematen dizkion ahalmenen barruan.

Kontratuaren arduraduna pertsona fisikoa edo juridikoa izan daiteke, erakunde kontratugilearen

barrukoa zein kanpokoa.

Kontratistak nahitaez beteko ditu kontratuaren arduradunak ematen dituen jarraibideak.

20. KONTRATUA EXEKUTATZEA

Kontratua honako baldintza hauen arabera exekutatuko da:

- Kontratistak kontratua horren termino eta baldintzen arabera betearaziko du, Administrazio Klausula Partikularren Agiri honetan eta horren Karatulan, Preskripzio Teknikoen Agirian eta kontratistak aurkeztutako eskaintzan xedatutakoari jarraikiz, eta erakunde kontratugileak, haren interpretazioan, kontratistari ematen dizkion jarraibideekin bat etorriz.
- Kontratuak bete egin behar ditu indarrean dauden legezko, erregelamenduzko eta hitzarmenezko xedapenak, betiere lan-arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan aplikatzekoak badira.

  Testuinguru horretan, lizitatzaileek 2. gutun-azal honetan aurreikusitako dokumentazioan adierazi beharko dute kontratuaren xede den lana egingo duten langileei, bertakoei edo azpikontratatutako enpresetakoei, zein hitzarmen kolektibo ezarriko zaien, adjudikaziodunak izanez gero. Kontratuaren xede den jarduera gauzatzen duten langileei kontratistak aplikatuko dien hitzarmen kolektiboari buruzko informazioa adjudikazio-ebazpenean sartuko da eta kontratugilearen profilean argitaratuko da.

  Halaber, kontratista behartuta egongo da kontratua adjudikatu eta gero langileei egiazki aplikatuko zaizkien lan-baldintzei buruz eskatzen zaion informazioa guztia ematera.

  Erakunde kontratistak, kontratuaren betearazpen osoan zehar, aplikatzekoa den sektoreko hitzarmen kolektiboaren eta langilearen kategoriaren araberako ordainsaria ordaindu beharko du. Ordainsaria ezin da inolaz ere langileari dagokiona baino txikiagoa izan.

  Atal honetan xedatutakoak betearazteko baldintza bereziaren eta funtsezko betebeharraren izaera izango du SPKLren 211.f) artikuluan jasotako ondorioetarako, eta, beraz, horiek ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoi izango da, erakunde kontratugileak hala nahi badu.

- Kontratua kontratistaren arrisku eta menturan betearaziko da.

- Erakunde kontratugileak kontratu-betebeharrak zuzen betetzen direla eta kontratua behar bezala betearazten direla kontrolatu, egiaztatu eta gainbegira dezake, edozein unetan eta edozein bitarteko baliatuz.

  Xede horrekin, erakunde kontratugileak egokitzat jotzen dituen kanpo laguntzak jasoko ditu, kontratu-betebeharrak behar bezala betetzen direla egiaztatzeko edo ikuskapena egiteko, baita lanak kalitate maila egokiarekin gauzatzen direla egiaztatzeko ere.

  Kontratistak zerbitzuekin lotuta erakunde kontratugileak eskatzen dizkion datu guztiak

aurkeztuko ditu; beharrezkoa den laguntza guztia eskainiko du, kostu gehigarririk gabe; eta, kontratatutako zerbitzuarekin lotutako lan- eta administrazio-arloko edo beste alor batzuetako dokumentazioa eskuratzea ahalbidetuko du.

Kontratistak ez ditu oztopatuko erakunde kontratugileak egiten dituen ikuskapen- eta kontrol-lanak.

Dena dela, erakunde kontratugileak edozein motatako ez-betetze edo eragozpen hautematen badu, horren berri zuzenean emango zaio kontratuaren arduradunari, hari baitagozkio, azken batean, zerbitzua ematen duten langileak antolatu eta gainbegiratzeko edo, hala badagokio, zigortzeko eskumenak.

- Langile guztiak erakunde kontratistaren mendekoak dira. Kontratistarenak dira bere enpresa-izaerari dagozkion eskubideak eta betebeharrak eta ezin izango zaio erakunde kontratugileari erreklamaziorik egin dagozkion lan-harremanengatik edo gainerako betebeharrengatik.

  Ondorio horietako, erakunde kontratistak honako betebehar hauek hartuko ditu bere gain:

  - ✓ Erakunde kontratistari dagokio, soil-soilik, baldintza-agirietan eskatzen diren titulazio- eta esperientzia-baldintzak betetzen dituzten langileak hautatzea. Langile horiek kontratuaren betearazpenari atxikitako lantaldeko kide izango dira, baina erakunde kontratugileak baldintza horiek betetzen direla egiaztatu ahal izango du.
  - ✓ Erakunde kontratistak ahalegina egingo du lantaldean egonkortasuna egon dadin, eta lantaldearen osaeran gertatzen diren aldaketak puntualak eta justifikatutako arrazoien ondorio izan daitezen, lanen funtzionamendu egokia ez aldatzeko, eta erakunde kontratugileari uneoro emango dio horren berri.
  - ✓ Erakunde kontratistak bere gain hartuko du enpresa orori dagokion agintzeko ahala modu erreal, eraginkor eta jarraituan egikaritzeko betebeharra, kontratua betearazteko lantaldea osatzen duten langileei dagokienez.
    Bereziki, bere gain hartuko ditu soldatak negoziatu eta ordaintzea, baimenak, lizentziak eta oporrak ematea, baja edo absentzia kasuetan langileak ordezkatzea, Gizarte Segurantzaren arloko legezko betebeharrak, kotizazioak eta prestazioak ordaintzea barne, hala dagokionean, laneko arriskuen prebentzioaren arloko legezko betebeharrak, diziplina-ahala erabiltzea, eta enplegatuaren eta enplegatzailearen arteko kontratu-harremanetik eratorritako eskubide eta betebehar guztiak.
  - ✓ Erakunde kontratistak bereziki zainduko du kontratuaren betearazpenari atxikitako langileek kontratuaren xede gisa baldintza-agiri hauetan mugatutako jarduerari dagokionez betetzen dituzten funtzioak gainditu gabe garatzen dutela beren jarduera.
  - ✓ Erakunde kontratistak gutxienez koordinatzaile tekniko edo arduradun bat izendatu beharko du, bere plantillakoa, eta honako betebehar hauek izango ditu, besteak beste:

    a) Kontratistaren solaskide jardutea erakunde kontratugilearen aurrean, alde batetik, kontratistaren eta kontratuari atxikitako lantaldeko langileen eta, bestetik, erakunde kontratugilearen arteko komunikazioa bideratuz, kontratua betearaztearen ondoriozko gaiei dagokienez.

b) Lana kontratua betearazteaz arduratzen diren langileen artean banatzea, eta kontratatutako zerbitzua emateko beharrezkoak diren aginduak eta jarraibideak ematea.

c) Lantaldea osatzen duten langileek agindutako eginkizunak behar bezala betetzen dituztela gainbegiratzea eta langile horiek lanpostura joaten direla kontrolatzea.

d) Kontratuaren betearazpenari atxikitako langileen opor-araubidea antolatzea; horretarako, kontratista behar bezala koordinatu beharko da erakunde kontratugilearekin, zerbitzuaren funtzionamenduan ez eragiteko.

e) Kontratuaren betearazpenari atxikitako lantaldearen osaeran izandako aldaketen (noizbehinkakoak edo iraunkorrak) berri ematea erakunde kontratugileari.

Kontratista izango da arduradun bakarra kontratua betearazteko ardura duten langileekin —langile propioekin edo noizean behin azpikontratatzen direnekin— lotutako edozein ezbehar edo erreklamazioren aurrean (judiziala edo estrajudiziala). Erakunde kontratugileak ez du lan erantzukizunik (laneko segurtasun, higiene eta osasunarekin lotutakoa barne), ezta Gizarte Segurantzarekin edo zerga esparruarekin lotutako erantzukizunik ere, kontratistak zuzenean edo zeharka hartzen dituen betebeharrei dagokienez. Modu berean, kontratistak bere gain hartuko ditu kontratua betearaztearen ondorioz gerta daitezkeen ezbeharrek eragindako erantzukizunak bakarrik.

- Kontratistak bere bulego edo instalazioetan gauzatu beharko du kontratua, non eta karatulan edo preskripzio teknikoen agirian ez den adierazten zerbitzuak erakunde kontratugilearen bulegoetan edo instalazioetan eman behar direla.

  Kasu horretan, erakunde kontratugileak kontratistaren eskura jarriko ditu erakunde kontratugileko langileek betetzen dituzten espazioetatik bereizitako espazioak, eta kontratistari dagokio kontratuaren betearazpenari atxikitako langileek adjudikatutako kokapena errespetatzen dela zaintzea.

  Kontratuaren xedea dela eta, kontratistak erakunde kontratugilearen bulegoetan edo instalazioetan eman behar baditu zerbitzuak, kontratistak, prestazioa ematen hasi aurretik, kontratua gauzatzera atxikitako langileak Gizarte Segurantzan afiliatuta eta alta emanda daudela egiaztatu beharko du.

- Kontratistak klausula honen arabera bere gain hartutako betebeharrak ez betetzearen ondorioz erakunde kontratugilea kontratistarekin elkartasunez zenbatekoak ordaintzera kondenatzen badute, kontratistari ordaindutakoa jasanaraziko zaio, eta, horretarako, erakunde kontratugileak egoki eta komenigarri den edozein akzio, administratibo edo judizial, gauzatu ahal izango du, ordaindutako zenbateko guztiak berreskuratu arte.

- Erakunde kontratistak, tratamenduaren arduradun gisa, bete egin beharko ditu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 2016/679 (EB) Erregelamenduak, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoak (aurrerantzean DBEO), eta kontratua indarrean dagoen bitartean datuen babesari buruz aplika daitekeen beste edozein arauk ezartzen dizkioten betebeharrak, bere jardueren esparruan nahiz bere kontura eta berak hala erabakita egiten dituen datu pertsonalen tratamenduengatik.

Betebehar hori ezartzen da alde batera utzi gabe, hala badagokio, **Karatularen 17. puntuan** berariaz ezarritakoa, erakunde kontratugileak datu pertsonalak tratatu behar izanez gero.

- Erakunde kontratistak bete egin beharko ditu, hala badagokio eta berariaz**, Karatularen 16. puntuan** ezarritakoa baldintzak.

21. KONTRATUAREN OINARRIZKO BETEBEHARRAK

Honako hauek izango dira funtsezko kontratu-betebeharrak:

- Kontratuaren betebehar nagusia bere klausuletan, eta Agiri honetan zein Preskripzio Teknikoen Agirian ezarritakora hertsiki lotuta gauzatzea.

- **Karatularen 5. puntuan** ezarritako entrega-epea betetzea.

- Eskainitako bermealdia betetzea.

- Bete egin behar ditu indarrean dauden legezko, erregelamenduzko eta hitzarmenezko xedapenak, betiere lan-arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan aplikatzekoak badira.

- Kontratistaren eskaintzan hitzemandako giza baliabide eta baliabide materialak kontratuaren betearazpenari atxikitzea.

- Jarduera egiteko behar diren lizentzia eta baimen guztiak bere kontura lortzea.

- Hornidura-prestazioa unean-unean aplikatzekoa den indarreko sektoreko araudian xedatutakoari jarraituz gauzatzea. Ondorio horietarako, bai kontratistak, bai erakunde kontratistaren langileek ziurtagiri guztiak izango dituzte une bakoitzean indarrean dagoen araudiak ezarritako betebehar guztiak betetzen dituztela egiaztatzeko, hala badagokio.

- Behin betiko bermeari eustea eta hura berritzea.

- Kontratua betearazten den bitartean, Agiri honen 25. klausulan kontratistari eskatzen zaizkion berezko estaldurak eta aseguruak kontratatuta edukitzea.

- Kontratua betearazteak eskatzen dituen eragiketen ondorioz hirugarrenei eragiten zaizkien kalte eta galera guztiak ordaintzea.

- Kontratua behar bezala garatu eta betetzeko erakunde kontratugileak egokitzat jotzen dituen zerbitzuak ematea, ordainketa osagarria jasotzeko eskubiderik gabe, besteak beste laneko bileretara edo informazio-bileretara joatea. Betebehar horri kontratuaren amaierara arte eutsiko zaio.

- Greba kasuan zerbitzuak betetzea. Zerbitzuak bermatzen ez badira, erakunde kontratugileak ahalmena izango du zerbitzu horiek betetzeko beharrezkoak diren kontratuak sustatzeko; kasu horretan, fakturaziotik kenduko da kontratu horiei dagokien zenbatekoa.
  Grebak irauten duen bitartean, benetan emandako zerbitzuei dagokien prezioa baino ez da ordainduko.

- Langileak ordezkatzea, beren funtzioa behar besteko arduraz eta eraginkortasunez betetzen ez badute eta horretarako gaitasunik ez badute, zerbitzuak behar bezala egiten ez badituzte edo kontratua behar bezala betearazteko kaltegarriak diren ekintzak egiten badituzte. Erakunde kontratugileak horretarako errekerimendua egiten duenetik gehienez ere hogeita lau orduko epean. Langileak ordezkatzeak ez du inolako erantzukizunik ekarriko erakunde kontratugilearentzat, kontratistak eragindako langileekin dituen harremanei dagokienez.

  Langile horiek dagokien baimena dutela egiaztatu beharko dute, beren jarduera hasi aurretik.

- Gaixotasunak, oporrek, baimenek, lizentziek, istripuek eta abarrek eragindako lan-absentziak betetzeko langileak ordezkatzea, kontratatutako zerbitzuak modu eraginkorrean eta jarraituan emango direla bermatzeko. Gehienez ere hogeita lau orduko epean.

- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako, kontratazio publikoan emakumeen eta gizonen ordainsari-berdintasunerako klausulak eta soldata-arrakalaren aurkako neurriak sartzeari buruzko Jarraibidearen VII. eta VIII. apartatuak betez. Jarraibide hori Gobernu Kontseiluak onartu zuen 2019ko martxoaren 5eko bilkuran, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen, 87. zenbakian, 2019ko maiatzaren 10ean. Emandako dokumentu guztietan hizkuntzaren erabilera ez-sexista bermatuko da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua betez. Lege horren babesean, argitara daitezkeen irudietan, pertsonei ez zaie erakutsiko, sexuaren arabera, giza duintasun txikiagoa edo handiagoa dutela, edo sexu-objektu hutsak direla, estereotipo sexistak saihestuko dira eta sexu-, rol- eta genero-identitatearen dibertsifikazioa bultzatuko da.

- Berdintasun-planari dagokionez, 50 langile edo gehiagoko enpresak berdintasun-plan bat izatera behartuta daude, bai eta lan-agintaritzaren zehapena ezartzera behartuta dauden enpresak edo aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboak hala ezartzen badu ere (45 3/2007 Lege Organikoa, 22 Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua).

- Zerbitzua emateak enpresa esleipendunak kontratuaren esku jartzen dituen langileen eta herritarren arteko harreman zuzena badakar, enpresa horrek bermatu beharko du herritarrekin harremanak izatea eskatzen duten zereginak egiteko zerbitzuaren esku jartzen dituen pertsonek behar besteko gaitasuna izango dutela beren zereginak euskaraz eta gaztelaniaz egin ahal izateko. Aurreko guztia, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuaren 13.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz.

- Adjudikaziodunak une oro errespetatu beharko du arau-maila guztietan (Europako Erkidegokoa, estatukoa, autonomikoa eta tokikoa) aplikatu beharreko legeria, bai lanen

hasieran indarrean dagoena, bai kontratua indarrean dagoen bitartean aldarrika daitekeena eta aplikatzekoa dena. Beraz, kontratuan aurreikusitako lanak egitean eragina izan dezaketen ingurumen-baldintzak ezagutu beharko ditu. Era berean, bere baliabideen erabilera eraginkorragoa egingo du, ahalik eta ingurumen-inpaktu txikiena bilatuz.

- Plegu honetan, karatulan eta/edo arlo horretan aplikagarri den legedian aurreikusitakoaren arabera, datuen babesaren arloan dituen betebeharrak bete dituela eta bete dituela behar bezala egiaztatu duela.

-Datu pertsonalen babesaren arloan dagozkion betebehar guztiak betetzea eta behar bezala egiaztatzea, Agiri honetan, Karatulan eta gai horren arloan aplikatzekoa den araudian aurreikusitakoaren arabera.

Karatularen **16 puntuan** adierazitako betebehar zehatzak betetzea, hala badagokio.

Klausula honetan eta **Karatularen 15. puntuan** aurreikusitako betebeharrak funtsezko kontratu-betebeharrak izango dira SPKLren 211. f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, eta, beraz, horiek ez betetzea erakunde kontratugileak kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da.

22. DATU PERTSONALAK BABESTEA

Erakunde kontratistak, tratamenduaren arduradun gisa, bete egin beharko ditu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 2016/679 (EB) Erregelamenduak, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoak (aurrerantzean DBEO), eta kontratua indarrean dagoen bitartean datuen babesari buruz aplika daitekeen beste edozein arauk ezartzen dizkioten betebeharrak, bere jardueren esparruan nahiz bere kontura eta berak hala erabakita egiten dituen datu pertsonalen tratamenduengatik.

Betebehar hori ezartzen da alde batera utzi gabe, hala badagokio**, Karatularen 17. puntuan** berariaz ezarritakoa, erakunde kontratugileak datu pertsonalak tratatu behar izanez gero.

23. KONFIDENTZIALTASUNA ETA SEKRETUA GORDETZEKO EGINBEHARRA

Informazio publikoa eskuratzearen inguruan indarrean dagoen legerian eta SPKLren xedapenetan jasotakoa alde batera utzi gabe –adjudikazioaren publizitateari eta hautagai eta erakunde lizitatzaileei eman beharreko informazioari dagokienez–, erakunde kontratugileak ezin izango du hedatu erakunde lizitatzaileek emandako informazioa, baldin eta horiek hura konfidentzialtzat adierazi badute euren eskaintza aurkezteko garaian. Konfidentzialtasunak eragina du, besteak beste, sekretu tekniko edo komertzialetan, eskaintzen diren alderdi konfidentzialetan eta lehia faltsutzeko erabil daitekeen beste edozein informaziotan –lizita prozedura honetan nahiz ondorengo batzuetan–.

Erakunde kontratistak, bere aldetik, kontratua betearaztean eskuratzen duen informazioaren konfidentzialtasuna gordeko du, agirietan edo kontratuan izaera hori ematen bazaio edo berez konfidentzialtzat tratatu behar bada.

Konfidentzialtasun-betebehar horri **Karatularen 18. puntuan** adierazitako epean eutsi behar zaio.

24. ERANTZUKIZUNA

Erakunde kontratistak izango du egiten dituen lanen eta emandako prestazioen eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzukizuna, baita kontratua betearaztean egiten dituen ez egiteek, akatsek, metodo desegokiek edo okerreko burutzapenek erakunde kontratugileari edo hirugarren batzuei eragin diezazkieketen ondorioena ere.

Erakunde kontratistaren betebeharra izango da kontratua exekutatzeak eskatzen dituen eragiketen ondorioz hirugarrenei eragiten zaizkien kalte eta galera guztiak ordaintzea.

25. ASEGURUAK

Erakunde kontratistak bere kontura kontratatuko ditu, kontratuaren iraupen osorako, **Karatularen 20. puntuan** adierazitako aseguruak, bertan finkatutako termino eta baldintzetan.

26. JABETZA INTELEKTUALA ETA INDUSTRIALA

Erakunde kontratista behartuta dago iturri baimenduetatik eta bere kontura eskuratzera lizentziak eta eskubideak, ekipamendu informatikoak (hardwarea eta softwarea) edo beste ekipamendu eta bitarteko osagarri batzuk erabili eta/edo ustiatu ahal izateko, Agiri honetan eta Preskripzio Teknikoen Agirian ezarritakoaren arabera, horiek atxiki, jarri eta/edo mantendu behar baditu Agiriaren xede diren zerbitzuak emateko.

Halaber, SPKLren 308.1 artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaio kontratazio honi. Hori horrela izanik, kontratu honen xede diren zerbitzuak gauzatzerakoan erakunde kontratugilearentzat sortu, diseinatu edo garatutako edozein emaitzaren jabetza erakunde kontratugilearena izango da bakarrik, osotasunean eta fase guztietan. Hori guztia, Jabetza intelektualari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuan eta Patenteei buruzko uztailaren 24/2015 Legean xedatutakoaren arabera, kontratistari egokitu dakizkiokeen egilearen eskubide moralak eta/edo asmatzaile gisa aitortua izateko eskubidea alde batera utzi gabe, eta horiek behar bezala aintzat hartu beharko ditu erakunde kontratugileak.

Ondorioz, eta, hala badagokio, **Karatularen 19. puntuan** berariaz ezarritakoa eragotzi gabe, kontratistak erakunde kontratugileari bermatu beharko dio kontratuaren xede diren zerbitzuen emaitzaren erabilera baketsua. Halaber, hala badagokio, behartuta egongo da horren parte diren elementu guztien lizentziak eta eskubideak modu legitimoan eta baimendutako iturrietatik lortzera, eta, horiek ematean, adieraziko du ez dagoela kontratazio honen arabera erakunde kontratugileari dagozkion eskubideen kontrako inolako konpromisorik edo kargarik.

Edonola ere, erakunde kontratista erantzulea izango da kontratuarekin zerikusirik ez duten hirugarrenek, jabetza intelektualari eta/edo industrialari dagokienez, hauekin lotuta egiten dituzten erreklamazioez:

- Jabetza industrialaren edo intelektualaren eskubideen bidez babestutako materialak, erremintak eta tresnak erabiltzea zerbitzuak emateko.
- Kontratazioaren xede diren zerbitzuen emaitza edo emaitza horren parte den edozein elementu.

Aurrez aipatutakoa kontuan hartuta, kontratistak kalte eta galerak ordaindu beharko dizkio erakunde kontratugileari, aipatutako arrazoiengatik egindako erreklamazioen ondorioz sortu badira.

27. ZIGORRAK

a) Berandutzeagatiko zigorrak

Kontratista, berari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik, Agiri honetan edo Karatulan zehaztutako epeak betetzean berandutuz gero, erakunde kontratugileak aukera izango du, nahierara, kontratua suntsiarazteko –Agiri honen 32. klausulako baldintzetan– edo hura betearazten jarraitzeko. Azken kasu horretan, erakunde kontratugilearen alde sortuko dira **Karatularen 21. puntuan** adierazitako zigorrak, bidezkoak diren kalte-galeren ordain guztiez gainera.

Kontratista berandutuz gero, ez da erakunde kontratugilearen aurretiko agindeirik beharko.

b) Kontratatutako prestazioak akatsez gauzatzeagatiko edo kontratuko beste edozein baldintza ez betetzeagatiko zigorra

Kontratista, berari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik, kontratatutako prestazioak akatsez gauzatzen baditu edo kontratuko beste edozein baldintza betetzen ez badu, erakunde kontratugileak aukera izango du, nahierara, kontratua suntsiarazteko –Agiri honen 32. klausulako baldintzetan– edo hura gauzatzen jarraitzeko. Azken kasu horretan, erakunde kontratugilearen alde sortuko dira **Karatularen 21. puntuan** adierazitako zigorrak, bidezkoak diren kalte-galeren ordain guztiez gainera.

Zigorrak ordaintzeko, erakunde kontratistari ordainketa osoa edo zatikoa egiteko ordaindu beharreko kopuruak kenduko zaizkio, edo bermetik kenduko zaizkio, aurreko kasuan adierazitakoa egitea ezinezkoa denean. Kasu horretan, dagokion erreklamazioa jarriko da eratutako bermea gainditzen duen kopuruagatik.

Nolanahi ere, kontratua suntsiarazi zein jarraitu erabakitzen badu ere, erakunde kontratugileak egokitzat jotzen duen denboran bere baliabide propioak erabiliz edo hirugarrenen bitartez kontratuarekin jarraitzeko erabaki dezake berak bakarrik. Kasu horretan, kontratistak ordainduko du jarraipen horren kostua, kalte-galeren ordainaren eta klausula honetan jasotako ondorioak alde batera utzi gabe.

28. KONTRATUA LAGATZEA

SPKLren 98. artikuluan jasota dauden kontratistaren ondorengoa hautatzeko kasuak alde batera utzita, kontratua subjektiboki alda daiteke kontratuaren lagapenaren bidez soilik, klausula honetan ezarritako mugen barruan, eta aukera hori berariaz jasota baldin badago **Karatularen 22. puntuan.**

Lagapenak bete egin beharko ditu SPKLren 214.2 artikuluko a), b), c) eta d) letretan ezarritako baldintzak; hots:

a) Kontratazio-organoak berariaz eta aldez aurretik eman behar du lagapena egiteko baimena, SPKLren 214.2.a) artikuluan adierazitako baldintzetan. Baimen eskaerari buruzko ebazpena jakinarazteko epea bi hilabetekoa izango da. Epe hori igaro ondoren hura emantzat hartu beharko da.
b) Erakunde lagatzaileak kontratuaren zenbatekoaren % 20 gutxienez gauzatuta izan behar du, SPKLren 214.2.b) artikuluan adierazitako baldintzetan.
c) Erakunde lagapen-hartzaileak sektore publikoko erakundeekin kontratuak egiteko gaitasuna izan behar du, eta, orobat, eskatutako kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta kaudimen teknikoa edo profesionala izan behar ditu; gainera, ez du kontratatzeko inolako debekurik izan behar, SPKLren 214.2.c) artikuluan adierazitako baldintzetan.
d) Erakunde adjudikaziodunaren eta erakunde lagapen-hartzailearen arteko lagapena eskritura publikoan formalizatu behar da, SPKLren 214.2.d) artikuluan adierazitako baldintzetan.

Erakunde lagapen-hartzailea lagatzaileari dagozkion eskubide eta betebehar guztietan subrogatuko da.

29. AZPIKONTRATATZEA

Erakunde kontratistak hirugarren batzuekin hitzartu dezake prestazioaren zati bat egitea, klausula honetan eta SPKLren 215. artikuluan xedatutakoari lotuz. Salbuetsi egiten dira, hala badagokio, **Karatularen 23. puntuan** adierazitako prestazioak.

Erakunde kontratistak kontratazio-organoari idatziz jakinarazi beharko dio, kontratua adjudikatu ondoren eta beranduen jota hura gauzatzen hasten denean, azpikontratuak egiteko asmoa; eta adierazi beharko du prestazioaren zein zati azpikontratatu nahi duen, azpikontratistaren edo horren legezko ordezkarien nortasunaz eta harremanetarako datuez gainera. Halaber, behar adina justifikatu beharko du azpikontratistaren gaitasuna hura gauzatzeko, erreferentzia eginez dituen elementu teknikoei giza baliabideei eta horien esperientziari. Gainera, egiaztatu beharko du azpikontratistak ez duela kontratatzeko debekurik, SPKLren 71. artikuluaren arabera.

Erakunde ontratista nagusiak kontratazio-organoari idatziz jakinarazi beharko dio informazio horrek duen edozein aldaketa kontratu nagusia betearaztean, baita azpikontratista berriei buruzko beharrezko informazioa ere.

Baldin eta erakunde azpikontratistak azpikontratatuko den kontratu zatia egiteko sailkapen egokia badu, kontratistak, hori jakinaraziz gero, ez du zertan haren gaitasuna justifikatu.

Erakunde azpikontratistaren gaitasuna azpikontratua egin eta berehala egiaztatu ahal izango da, baldin eta azpikontratua beharrezkoa bada larrialdi bati erantzuteko, edo presazko neurriak hartu behar direlako, eta behar bezala justifikatzen bada.

Erakunde azpikontratistek kontratista nagusiaren aurrean baino ez dituzte betebeharrak izango, eta hark bereganatuko du, beraz, erakunde kontratugilearekiko erantzukizun osoa, baldintza-

agiriei eta kontratuaren baldintzei zorrotz lotuta gauzatzeko, bai eta SPKLren 201. artikuluan aipatzen diren ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloko betebeharrak ere.

Erakunde kontratugileak kontratista nagusiak egindako azpikontratuen berri izateak ez du erakunde kontratista nagusiaren erantzukizun esklusiboa aldatuko.

Erakunde azpikontratistei eta hornitzaileei egin beharreko ordainketak eta ordainketa horien egiaztapena SPKLren 216. eta 217. artikuluetan xedatutakoaren arabera egingo dira.

30. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Kontratazio-organoak kontratua aldatu ahal izango du SPKLren 205. artikuluan aurreikusitako kasuetan.

Gainera, kontratazio-organoak kontratua aldatu ahal izango du **Karatularen 24. puntuak** berariaz ohartarazten duenean aukera horren inguruan, puntu horretan jasotako termino eta baldintzetan.

Kontratuaren aldaketek ezingo dute berekin ekarri kontratuan jasota ez dauden unitateko prezio berriak ezartzea.

Kontratuaren aldaketak SPKLren 153. artikuluan xedatutakoaren arabera formalizatu beharko dira.

Hala eta guztiz ere, hornidura-kontratuaren prezioa prezio unitarioen bidez zehazten bada, hornitu beharreko unitateen kopurua handitu ahal izango da, SPKLren 205.2.c) 3. artikuluan aipatzen den kontratuaren prezioaren % 10eraino, eta ez da beharrezkoa izango dagokion aldaketa-espedientea izapidetzea, SPKLren 301. artikuluan xedatutakoaren arabera, zeina berariaz aplikatuko baita ondorio horietarako.

31. HARRERA ETA BERMEALDIA

Kontratua guztiz beteko du erakunde kontratistak prestazioa osorik gauzatzen duenean, betiere kontratuan adierazitako terminoetan eta erakunde kontratugilearen adostasunarekin.

Harrera partzial guztietan, hala dagokionean, baita harrera totalean ere, erakunde kontratugilearen ardura izango da kontratistak prestazioa ondo gauzatu ote duen erabakitzea, hau da, kontratua betearazteko eta betetzeko jarritako baldintzak bete ote dituen erabakitzea, eta, beharrezkoa bada, bere ardura izango da kontratatutako prestazioak gauzatzeko eskatzea eta, prestazioak jaso dituenean akatsik ikusten badu, akatsak zuzentzeko eskatzea.

Kontratistari egotz dakizkiokeen akatsen ondorioz, lanak kontratatutako prestazioarekin bat ez badatoz, erakunde kontratugileak prestazioa errefusa dezake eta ez du ordainketarik egin beharko edo, hala badagokio, ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea edukiko du.

Horretarako, 21. klausulan jasotakoa ez da alde batera utziko; nolanahi, erakunde kontratugileak

dagozkion zigorrak eskatu ahal izango ditu, baita kalte-galeren ordainak ere, kontratutako prestazioak akatsez eginez gero edo kontratuko baldintzetako edozein betetzen ez bada.

Bermealdia **Karatularen 25. puntuan** adierazten da.

Adierazitako bermealdian ziurtatzen bada egindako lanetan akats edo okerrak daudela, kontratazio-organoak erakunde kontratistari eskatu ahal izango dio horiek konpontzeko, nahikoa balitz.

Kontratazio-organoak uste badu, bermealdian, hornitutako ondasuna ez dela gai lortu nahi den helbururako, kontratistari egotz dakizkiokeen akats edo akatsen ondorioz, eta uste badu ondasun hori birjartzea edo konpontzea ez dela nahikoa izango helburu hori lortzeko, epe hori amaitu aurretik, uko egin ahal izango dio, erakunde kontratistaren kontura utzi eta ordaintzeko betebeharretik salbuetsita geratuko da, edo, hala badagokio, ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea izango du.

Bermealdia amaitzean erakunde kontratugileak ez badu konponketarik egin edo klausula honetan adierazitako salaketarik egin, kontratistak ez du erantzukizunik edukiko egindako prestazioaren gainean.

32. KONTRATUA ETETEA

Erakunde kontratugileak kontratua eten ahal izango du, baldin eta SPKLren 208.2 artikuluan jasotako kalte-galerak ordaintzen badizkio kontratistari. Ondorio horietarako, artikulu hori berariaz aplikatzekotzat ezartzen da.

33. KONTRATUA AZKENTZEA

Kontratua azkendu egingo da berori betetzeagatik nahiz ondoren arautzen denaren arabera hura suntsiaraztea erabakitzeagatik.

Kontratua suntsiarazteko kausak lirateke, erakunde kontratugilearen borondatez:

a) Beste edozein prozeduratan, hartzekodunen konkurtsoa deklaratzea edo kaudimengabeziaren deklarazioa.

b) Erakunde kontratista epeetan berandutzea.

c) Kontratuaren betebehar nagusia ez betetzea.

d) Funtsezkoak diren gainerako betebeharrak ez betetzea, baldin eta horiek halakotzat kalifikatu badira.

e) Prestazioa hasieran adostutako baldintzetan gauzatzeko ezintasuna, kontratua Agiri honetan xedatutakoaren arabera aldatu ezin bada.

f) Kontratua betearaztean, erakunde kontratistak soldatak ez ordaintzea betearazpenean parte hartzen ari diren langileei nahiz langile horientzat aplikatzekoak diren hitzarmen kolektiboetan ezarritako baldintzak ez betetzea, baita kontratua betearaztean ere.

g) Oro har, edozein kontratu-betebehar ez betetzea, Kode Zibilaren 1.124 artikuluan jasotakoaren arabera.

h) Era berean, kontratua suntsiarazteko kausa izango dira SPKLren 313. artikuluaren 1. apartatuan ezarritakoak –ondorio hauetarako, hura berariaz aplikatzekoa deklaratzen da:

1. Prestazioa hasi baino lehen uko egitea edo erakunde kontratugileari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik prestazioaren hasiera lau hilabetetik gora etetea, kontratua entregatzeko adierazi den datatik hasita.
2. Uko egitea prestazioa gauzatzen hasi ondoren edo kontratua etetea zortzi hilabetetik gorako epean, erakunde kontratugilearen erabakiz.

Klausula honetan kontratua suntsiarazteko aurreikusitako kasurik badago, automatikoki suntsiaraziko da. Halakoetan, erakunde kontratugileak hartu duen erabakiaren jakinarazpen fede-emailea egin behar dio kontratistari.

Jakinarazpena jaso eta gero, kontratistak erakunde kontratugilearen esku utzi behar ditu kontratatu diren zerbitzuak eskaintzeko ordura arte egindako dokumentu guztiak, eta kontratua dela-eta sortutako gainerako dokumentazioa edo informazioa, erakunde kontratugileak erabilitako eta kontratistari emandako agiriekin batera. Aipatutako dokumentazio guztia erakunde kontratugilearena izango da aurrerantzean.

Horrez gain, dagokion kontratuaren likidazio ekonomikoa egingo da ondoren, jarraian adierazten denaren arabera.

Klausula honetan aurreikusitako arrazoiengatik edo legez egokiak diren arrazoiengatik kontratua bertan behera uztean eragiten diren erantzukizun ekonomikoak, edo legez dagozkionak, kontratua bertan behera benetan uztean eta dagokion dokumentazioa aurkeztean likidatuko dira. Horrek ez du eragotziko, ordea, erakunde kontratugileak hura gauzatzen jarraitu ahal izatea.

Suntsiarazpen kasu guztietan, benetan egin diren onartutako prestazio guztien prezioa jasotzeko eskubidea edukiko du erakunde kontratistak, hasiera batean.

Kontratua kontratistari egotz dakiokeen edozein arrazoirengatik suntsiarazten bada, erakunde kontratugilearen alde sortuko da **Karatularen 26. puntuan** jasotako zenbatekoa, kasuan-kasuan dagozkion kalte-galeren ondoriozko edozein ordainez gain. Bi kopuruak behin betiko bermetik eta kontratistari ordaintzeke dagoen preziotik kenduko dira eta soberakinaren erreklamazioa aurkeztuko da.

Aurrekoa alde batera utzi gabe, SPKLren 313. artikuluaren 3. apartatuan aplikatuko da berariaz, hau da:

a) Klausula honen h) letrako 1. atalean aurreikusitako ebazpenen kasuan, kontratistak, kontzeptu guztiengatik, kontratuaren adjudikazio prezioaren % 3ko kalte-ordaina (BEZik gabe) soilik jasotzeko eskubidea izango du.
b) Klausula honen h.2. atalean aurreikusitako suntsiarazpenen kasuan, kontratistak, kontzeptu guztiengatik, egin gabe utzi diren prestazioen adjudikazio-prezioaren % 6 (BEZik gabe) jasotzeko eskubidea izango du, mozkin industriala dela-eta.

Azkenik, kontratua suntsiarazi ahal izango da erakunde kontratugilea eta kontratista ados jarriz gero. Halakoetan, aldeen eskubideak haiek baliozkotasunez adostutakora egokituko dira.

34. ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratua pribatua da eta, prestaketari dagokienez, honakoek arautuko dute: Administrazio Klausula Partikularren Agiri honek, Preskripzio Teknikoen Agiriak eta, adjudikazioari dagokionez, Administrazio Baldintza Partikularren Agiri honek; eta, horietan aurreikusita ez dagoen guztian, SPKLTBn horri buruz ezarritako arauek (botere adjudikatzailea duten eta administrazio publiko ez diren sektore publikoko erakundeen artean egindako kontratuak erregulazio harmonizatuaren mende ez badaude).

Ondorioei eta azkentzeari dagokienez, honako hauek arautuko dute kontratua: Administrazio Klausula Partikularren Agiri honek, Preskripzio Teknikoen Agiriak; eta, horietan aurreikusita ez dagoen guztian, zuzenbide pribatuko arauek. Nolanahi ere, kontratuari aplikatzekoak izango zaizkio SPKLren 319. artikuluan ezarritako arauak “eraginei eta azkentzeari” dagokienez.

Gainera, aplikatzekoak izango dira SPKL eta 1098/2001 Errege Dekretua (urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena) Agiri honetan testu arauemaile horietara jotzen duen guztian.

35. JURISDIKZIOA

Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa izango da eskuduna kontratuak prestatzeari, adjudikatzeari eta aldatzeari buruz sortzen diren auziak ebazteko; azken horien aurkaratzeak oinarri duenean SPKLren 204. eta 205. artikuluetan ezarritakoa ez betetzea, ulertzen bada aldaketa horrek beste adjudikazio baten xede izan behar zuela.

Hala badagokio, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera, errekurtsoa jarriko da Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko organo eskudunaren aurrean.

Jurisdikzio zibila izango da eskuduna kontratuaren ondorioei eta kontratua azkentzeari dagokionez, klausula honen lehen paragrafoan aipatutako kontratu-aldaketak izan ezik.
.

I. eranskina. Abal-eredua.

[…] erakundeak (kreditu-erakundearen edo elkar bermatzeko sozietatearen izena) (IFK: […] eta jakinarazpen eta errekerimenduetarako helbidea: […]) eta haren izenean […](e)k (ahaldunen izen-abizenak), dokumentu honen behealdean adierazitako ahalordea askiestetik ondorioztatzen denez, egintza honetan behartzeko behar beste ahalorde duenak honako honi ematen dio ABALA: […] (abaldunaren izena eta abizenak edo helbide soziala) (IFK zk.: […]) […](r)en aurrean, […] euroko zenbatekoaz, […] kontratuaren ondoriozko betebeharrei erantzuteko.

Erakunde abal-emaileak haren erantzukizunpean adierazten du Administrazioko Kontratuen Legearen Erregelamendua onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 56.2 artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzen dituela. Abala sinatzen da obligaziodun nagusiarekin solidarioki, esklusio- eta zatikatze-onurari espresuki uko eginda, eta […](r)en lehen errekerimenduan ordaintzeko konpromisoa hartuta.

Abal hau indarrean egongo da […](e)k berori ezereztea edo itzultzea baimentzen duen arte.

[…](a)n, […](e)ko […]aren […](e)(a)n

[Sinadura]

Anexo II. KEDB

III. eranskina. Hirugarren erakundeak bete beharreko erantzukizunpeko adierazpenaren eredua.

[OHARRA: Soilik aurkeztuko da erakunde lizitatzaileak, eskatutako kaudimena eta/edo baliabideak atxikitzeko konpromisoa egiaztatzeko, beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo bitartekoetan oinarritu nahi badu. ***Hirugarren erakundeak osatu behar du eta 1. gutun-azalean sartu]***

[…] jaunak/andreak (helbidea: […] eta NAN zk.: […]), bere izenean, edo […](r)en izenean eta haren ordezkari gisa (helbidea: […] eta NAN edo IFZ zk.: […]), gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoz, ezagutzen du lizitazioa, eta honen bidez,

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU:

Eskaintza hau aurkeztu den egunean, ez dagoela Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71. artikuluan ezarritako kontratatzeko debekuen eraginpean (lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora).

[…](a)n, […](e)ko […]aren […](e)(a)n

[Sinadura]

IV. eranskina. Erakunde lizitatzailea beste erakunde batzuen kaudimenean eta bitartekoetan oinarritu nahi bada, eskatutako kaudimena edo bitartekoak atxikitzeko konpromisoa egiaztatzeko erantzukizunpeko adierazpena

[OHARRA: Soilik aurkeztuko da lizitatzaileak eskaintzarik onena aurkezten badu edo, eskatutako kaudimena egiaztatzeko edo eskatutako bitartekoak atxikitzeko konpromisoa egiaztatzeko, erakunde lizitatzaileak asmoa duenean beste erakunde batzuen kaudimenean edo bitartekoetan oinarritzeko. ***Hirugarren erakundeak bete behar du]***

[…] jaunak/andreak (NAN zk.: […]), […] enpresaren (IFK: […]) legezko ordezkari gisa, adierazi du osorik ezagutzen dituela […] (enpresa lizitatzailearen izena) erakunde lizitatzaileak lehiatuko duen […] kontratatzeko lizitazioaren baldintzak, eta adjudikaziodun suertatuz gero, kontratua betearazteko behar diren baliabideak lizitatzaile horren esku jartzeko borondate ezeztaezina adierazten duela, Kode Zibileko 1257.2. artikuluan xedatutakoa espresuki onartuta. Hori ordeztu edo aldatzea […] erakundeak baimendu beharko du espresuki.

Era berean, adierazten du, eskaintza hau aurkeztu den egunean, ez dagoela Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71. artikuluan ezarritako kontratatzeko debekuen eraginpean (lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora).

Idatzi hori, […]ren aurrean aurkeztuak, berekin ekarriko du konpromiso hori onartzea, baldin eta lizitatzailea adjudikaziodun suertatzen bada.

[…](a)n, […](e)ko […]aren […](e)(a)n

[Sinadura]

V. eranskina. Formulak erabiliz ebalua daitezkeen irizpideei buruzko proposamena.

……..Jaun/Andre/Andrea ……..……..helbidea: eta «NAN»zbk …… duena , bere izenean edo ……..……..NANaren ordezkari gisa; ……..……..helbidea: NAN eta IFZ zbk……; gaitasun juridiko osoa; eta jarduteko gaitasun osoa; lizitazioaren berri izan ondoren, prozedura ……..honen bidez …….. kontratatzeko.

ADIERAZTEN DU

1. Kontratua gauzatzeko konpromisoa hartzen duela, baldintza hauen arabera:

a) Eskainitako prezioa: ……(BEZa barne), honela banatuta:

- …….(BEZik gabeko prezioa)
- ……. Euro (BEZ).

b) Genero ikuspegia

Kontratua arautzen duen kontratu-dokumentazioa ezagutzen duela, eta dokumentazio hori oso-osorik onartu eta onartzen duela.

[-] (e) n, [-tik] (e) ra.

[Sinadura]